



Venezuelaren ehiza



ASIER BLAS MENDOZA
EHU-KO IRAKASLEA
@AxiBM

1 999an Hugo Chavez boterera iritsi zenetik ezkerreko gobernu soberanistaren kontrako gerra amaigabea egon da martxan, intentsitate desberdinekin unean uneko botere korrelazioaren arabera. Arazoa ez da 2018ko hauteskunde presidentziala, arazoa chavismoaren proiektu burujabea da. Horregatik, AEBek eta Venezuelako burgesia handiek ez dituzte onartu chavismoak irabazi dituen hauteskunde desberdinak.

2002an oposizioak eta AEBak estatu kolpe bat ematen saiatu ziren. Nazioarteko botere oreka aldekoa zuten, ez ordea herria eta ejertzitua. Orduetik geopolitika asko aldatu zen ezkerreko gobernuen ugaltzearekin Latinoamerikan eta bigarren mailako nazioarteko potentzien indartzearekin. 2002tik 2009ra garai onak izan ziren soberanistentzat. Baina, AEBek nazioartean izandako porroten ondorioz, Obamak berriro Latinoamerikari begiratu zion.

Hondurasko estatu kolpe gogorrek (2009) markatu zuen aldaketa, ondoren herrialde aurrerakoiaren kontrako desestabilizazio eta kolpe biguinen kanpainak etorri ziren. 2014an petrolioaren prezioa hondoratu egin zen, beste faktore batzuen artean, AEBen eta Saudi Arabiaren arteko akordioak bultzatuta etsai geopolitikoak kaltetzeko. Horrela, 2014 eta 2015 artean berrindartu zen Venezuelaren aurkako gerra hibridoa: sabotaje ekonomikoaren estrategia berpiztu eta oposizioak biolentzia barreiatu zuen *guarimbero*-en

Kanpo interesen zerbitzura presidente kargua usurpatu duen Guaidó kalean dabil, Puigdemont erbestean eta Junqueras preso. Zorionez, Txina eta Errusia daude. Venezuela ez badago inbaditua oraindik, batez ere, Errusiari esker da

bitartez, artean Obabamak lehenengo santzio ekonomikoak jarri zituen. Testuinguru horretan, oposizioak Asanblada Nazionalerako hauteskundeak irabazi zituen. Hiru diputatu ustelen izendapena Auzitegi Gorenaren erabakiaren aurka egin zen eta orduetik, desakatoan egon da parlamentua Venezuelako estatu erasotzen.

Guarimbero-en bigarren eraso 2017an izan zen. Bortizkeria hainbestekoa izan zen, ezen eta oposizioak erabat zatitua bukatu baitzuen eta horrek eragina izan zuen gobernuaren eta oposizioaren arteko negoziaketan. Adostasuna hauteskunde presidentzialen aurrerapean zegoen, baina oposizioak lider integratzaile bat falta zuen lehiazteko. AEBek hor hartu zuten erabakia hauteskundeak boikoteatu eta bere estrategia kolpista propioa martxan jartzeko Venezuelako

oposizioarekin adostu gabe. Ondoren Maduroren aurkako atentatu saiakera egon zen eta AEBetako *Associated Press*-k azaldu bezala Washingtonek estatu kolpea prestatzen jarraitu zuen.

Libia, Ukraina, Siria, Brasil, Nikaragua... Helburua guztietan berdina da, herrialdeak Mendebaldearen esanetara jartzea, nahiz eta askok ez duten ustezko posizio aurrerakoietatik hori ikusi nahi. Lotsa gutxi behar da azken urteetan jasan dugun zirko mediatikoa espiritu kritikorik gabe irensteko. Milioika ordu eta tona paper argitaratu dira agintari subiranisten demonizazio amaigabeak burutzeko edota ustezko kanpo (errusiar) injerentziari buruz hitz egiteko. Berriz, benetako kanpo injerentzia datorrenean, egileak esplikatzeko dizunean lotsagabe, orduan demokraziaz eta giza eskubideez hitz egiten da *fake news* jaialdi bat antolatuz. Bitartean, kanpo interesen zerbitzura presidente kargua usurpatu duen Guaidó kalean dabil, Puigdemont erbestean eta Junqueras preso. Zorionez, Txina eta Errusia daude. Luisi Uharte EHuko irakasleak azaldu duen bezala, Venezuela ez badago inbaditua oraindik, batez ere, Errusiari esker da. Baina zaudete lasai, oraindik ustezko aurrerakoi *neoon*-en negarrak entzungo ditugu multipolaritateak sortzen duen nazioarteko harremanen kudeaketa demokratikoagoaren aurka hitz eginez, izan ere, bihotzean mendebaldar supremazismoa tatuatua daramate eta. ●